



❖ JUBILATU ETXEA Ozenki abesbatzaren kontzertua

Ozenki abesbatzak eta Doinu Zale musika eskolako umeez kontzertua eskainiko dute Jubilatutako Etxean, bihar osteguna. Kontzertua arratsaldeko 19:30etan hasiko da. Bestetik larunbatean, hilaren 22an, Lau Haizeta akordeoi orkestraren emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita. ||

Jon Zabaleta marrazkilariaren 'Manuel-memoria' erakusketa bihartik Koldo Mitxelenan

Artistaren hitzetan erakusketa azken 15 urteetan egindako ibilbide pertsonala da, bere familia eta bere buruaren memoria berreskuratzeko saioa.

JON Zabaleta marrazkilari hernaniarraren erakusketa jarri dute Donostiako Koldo Mitxelenan. Jon Zabaletak azken 15 urteetan egindako ibilbide pertsonala ikusi daiteke erakusketa honetan, bere ibilbidean hain ezaguna ez den aldea, hain zuzen. Erakusketaren gaia 'Manuel-memoria' da eta, artistaren hitzetan, bere familiako eta bere buruaren memoria berreskuratzeko saioa da. Erakusketa bihar, osteguna, inauguratuko da, arratsaldeko 19:30etan eta urtarrilaren 7ra arte izango da ikusteko aukera.


Euskal kulturaren esparru guztietan lanean

Erakusketaren antolatzaileek azaldu zuten Jon Zabaletak euskal kulturaren industriaren arlo guztietan egin duela lan: aldizkarietan, liburuetan, diskoen azaletan eta egunkarietan ikusi ahal izan dira bere lanak. Azaldu zuten Jon Zabaleta erreferentzia izan dela mundu horretan lan egin duten artista guztientzat. Euskal mitoei egin zuen lana garai hartan Zabaletak, magia, mitologia eta ametsak baitziren bere lanen gaia.

Manuel-memoria

Jon Zabaletak Koldo Mitxelenan jarritako erakusketa, ordea, bestelako gauzak erakusten ditu. Antolatzaileen hitzetan azken 20 urteetan bere familiako memoria berreskuratzeko egindako lanaren isla baita erakusketa hau, oso pertsonala.

Honen harira Jon Zabaletak azaldu zuten Manuel Larburu, osaba izandakoaren historia. Zabaleta Lesakako baserri batera bizitzera joan eta jakin



Jon Zabaleta, Manuel osabaren argazkiaren ondoan.

Erakusketaren antolatzaileek azaldu zuten Jon Zabaletak euskal kulturaren industriaren arlo guztietan egin duela lan: liburu, aldizkari, disko eta egunkarietan. Erreferentzia izan da mundu horretan lan egin duten artistentzat.

zuen han inguruan, Urruñan, desagertutako bere osabaren berri. Hari batetik eta bestetik tiraka jakin zuen Gerra Zibiletik exiliatuta bizi zela, bere etxean II. Munduko Gerrako abiadoreak gordetzen zirela, eta norbaitek salatuta alemanek eraman egin zutela. Jon Zabaletak adierazi zuen "istorio hau familian ezkutuan" zegoela eta bere lana izan dela Manuelen memoria, azken finean berea, berreskuratzea. Izan ere Jon Zabaletak azaldu zuten, artistek askotan atera-

tzen dutela falta zaiena eta berari Manuel falta zitziola esan zuen.

Teknika ezberdinak

Erakusketa teknika askotariko lanak ikusi daitezke: rotuladoretz marraztutako marrazkia, aldizkari eta komikietan egindako collageak, buztinezko figurak, bideo montajeak eta argazkiak, kartoiez egindako estrukturak.

Bere lanekin, marrazkiekin, elkarriketekin, argazkiekin, testuekin eta bere lanaren ana-

lisiekin liburu-katalogo bat argitaratu du Koldo Mitxelenan Kulturuneak eta Gipuzkoako Diputazioak. ||



'Collage' teknikaren bidez egindako lana, 'Manuel'.

❖ OMENALDIA

Hildako gudariei omenaldia

Datorren larunbatean, hilaren 22an, urteroko omenaldia egingo da hildako gudariei alde. Hil zituztela 25 urte betetzen dituzte aurten: Camio, Antimasbere, Zapa, Luis Mari eta Portuk. Batallon Vascoespañolak hil zituen. Hildako beste 16 hernaniar ere omenduko dituzte. Omenaldia arratsaldeko 20:00etan, Oialumen. ||

◆ PELOTA

Oier Mendizabalen partidua etzi

Oier Mendizabal pelotariak 4 1/2 bigarren mailako pelota partidua jokatu du Eskuderoren kontra. Partidua ostiralean izango da, Hernaniko kiroldegian gaueko 22:00etan. ||

❖ MENDIRIZ MENDI

Jardueren egitaraua osatzeko bilera

Mendiriz Mendik bilera egingo du gaur 2006 urteko egitaraua osatzeko. Elkarrekin jakinarazi du bilera irekia dela eta proposamenak jasotzeko prest daudela. Bilera gaur arratsaldeko 20:00etan egingo dute, Iturregi plazan duten bulegoan. ||

ITXASPE
Arrandegia

Antziola 5 - Tel.: 943 330 365 - Mob.: 653 741 097

Amegar
Etxe Tresnak
Altzariak

Txirrita Kalea, 15. Tel.: 943 55 11 25 Faxa: 943 55 16 03

AKELENEA
Erregegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Ana eta Koldo

Eguneko menua
Ezkontzak
Komunioak
Karta
Kuadrilak
Sagardotegia

Oialume Bidea, 57
20115 Astigarraga (Gipuzkoa) Telf_943 33 33 33

TELEFONAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077
Gaez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Gaurkoan eguzkiak gozatzeko aukera izango dugu tarteak. Goizean tenperatura freskoak izango ditugu baina epelzen joango da eta maximoa 22°C ingurukoa izango da. Arratsalde-tik aurrera laino gehiago izango dira.
BIHAR Ostegun iluna izango dugu. Zeruia guztiz lainotuta izango da eta euria botako du egun osoan. Tenperaturak pixka bat behera egingo du.

❖ BILDU HERNANI

BHk igandean izango den 'Kaiera' ekimenean parte hartzeko deia egin du

Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoak defendatzeko ezinbestekoa ikusten du horrelako ekimen batean parte hartzea.

BILDU Hernanik, Kronikara bidalitako prentsa ohar batean, hernaniar guztiei igandean izango den Kaiera ekimenean parte hartzeko deia luzatu die. BHk gogorarazi du ekimen honekin salatu nahi direla "Madriren 200 euskal herritarren aurka hasi behar diren epaiketak".

Eskubide zibil eta politikoak Testuinguru honetan BHk azpimarratu nahi izan du epaiketaren hauek 9 hernaniar daudela auziperatuak eta elkartasuna adierazi nahi diete. BHk epaiketaren hauek ulertzen

ditu "Madriko gobernuak azken urte hauetan bideratutako politikaren azken emaitza" bezala eta gogorarazi du "urte hauetan komunikabideak itxi" egin direla "Egin edo Egunkariaren kasua; alderdi politikoak eta gizarte mugimenduak ilegalizatu dira: Batasuna, Gestorak, Haika, Segi... Atxilotu ugari torturatuak izan dira eta azken batean eskubide zibil eta politikoen etengabeko zapalkuntza bizi izan dugu" azaldu du Bildu Hernanik.

BHren ustez eraso hauen azken helburua da Euskal

Herriaren nazio eraikuntzan ari diren mugimendu guztiak ezabatzea eta Euskal Herria ukatzea. Hori dela-eta, BHk dei egiten die "euskal herritar guztiei nazio eraikuntzan inplikatzeko eta bide honetan ari diren ekimen eta mugimenduak indar berrituekin bultzatzeko".

Bi zita igandean

BHk igande honetan bi zita nagusi gogorarazi nahi izan ditu: goizeko 10:00etan Egineko egoitza aurrean eta eguerdiko 12:00etatik aurrera Plaza Berrian. ||

◆ PELOTA

Jagoba Yubero eta Unai Alvarez 22 urtez azpiko Munduko Txapelketan

Ostegunean hasi eta hilaren 30era bitartean izango da mundiala, Txilen. Yubero eskuz binaka ariko da eta Alvarez banaka.

JAGOBA Yubero eta Unai Alvarez pelotari hernaniarrak aukeratu dituzte 22 urtez azpiko Munduko Txapelketan parte hartzeko. Munduko Txapelketa Txileko Viña del Mar-en jokatu da ostegunean hasi eta hilaren 29ra bitartean izango da. Jagoba Yuberok eskuz binaka jokatu du eta Unai Alvarezek eskuz banaka.

Mundialean Argentina, Mexiko, Venezuela, Txile, Ekuador, Kuba eta Frantziako pelotarien aurka arituko dira eta domina bat Hernanira ekartzeko aukera handia dute. Baina txapelak etxera ekartzeko garaian, frantziarrak eta mexikarrak lehiakide gogorrak izango dira.

Txapelketa hau Yubero eta Alvarezentzat azkeneko denboraldian egindako joko onaren saria da. Izan ere Yuberok Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuen eta Alvarezekin batean bikotea osatuta, Euskal Herriko semifinalletara iritsi ziren. GRAVN txapelketan ere, 22 azpikotan, Gipuzkoaren izenean irabazi egin zuten bizkaitarren kontra.

Bestetik gogoratu beharra dago Goiatz Mansizidor hirutan izan dela mundialetan: Arnedon eta Uruguayan 22 urtez azpikotan eta Iruñean nagusi mailan. ||



Yubero eta Alvarez pelotariak.



Gaztetxulo busa Hernanin izan zen. Gaztetxulo aldirik 5 urte bete ditu aurtengo urrian eta hori dela eta herriz herri ibili dira Gaztetxulo busarekin. Hernanin astelehenean izan ziren, Urbieta kalean, eta Aritz Sound System aritu zen musika jartzen. Informazioa eta kondoiak ere banatu zituzten. ||

❖ ONGINTZA

Zuzendaritza Batzordea gaur

Ongintzako Zuzendaritza Batzordea bilduko da gaur, arratsaldeko 16:00etan. Gai ordena da: Hernanin arrisku egoeran bizi diren gazte eta adingabeei heziketa kalean emateko zerbitzuaren bukaera; etxeko laguntza zerbitzurako Eudel hitzarmena; etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua luzatzea; funtzionario talde batek jarritako demanda 2005eko lanpostu zerrendari buruzkoa eta 2006ko aurrekontu proiektua aurkeztea. ||

❖ EHE

Kurtso honetako plangintzaren aurkezpena bihar

Euskal Herrian Euskarazek kurtso berriko plangintzaren aurkezpena egingo du bihar, arratsaldeko 20:00etan Biterin. ||

❖ MIKOLOGIA JARDUNALDIAK

Perretxikoei buruzko hitzaldia bihar

Urretxa Mikologia elkarteak antolatuta Mikologia jardunaldiak antolatu dituzte hilabete osorako. Bihar perretxikoei buruzko hitzaldia izango da, zehazki pagadietako perretxikoetaz hitz egingo dute. Hizlari lanetan ariko da Antton Melendez. Bihar arratsaldeko 20:00etan, Biterin. Bestetik perretxiko argazki lehiaketan parte hartu nahi duenak gaur du karretea hartzeko azkeneko eguna, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Urretxako bulegoan (Kale Nagusia, 6). ||

❖ ETXEBERRI ELKARTEA

Etxeberriko danborradako materiala jasotzeko merienda

Etxeberriko danborradan parte hartu zuten hurrekin merienda egingo dute datorren larunbatean, hilaren 22an, materiala itzultzeko. Arratsaldeko 17:00etan, Etxeberri elkartearen. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

HONDA SCOOPY 75 motorra dut saltzeko, egoera onean. 400 euro. Deitu: 605 70 42 65

Hiru neska jator alkilerreko pisu bila gabiltza. Deitu 617 76 10 01 (20:30etatik aurrera)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arutz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15